# Birika zatiak

XABI BORDA

poesia
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2004 Xabi Borda
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2004ko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

# MEDIKUARENEAN

bularraldearen erradiografia
atera dit medikuak

argitara eraman eta
zati belatuak seinalatu dizkit

asfixia zantzuak
antzematen omen dira

saihetsartean
birika zatiak falta zaizkit

# Goizaldeko hozkirria biriketan

# IZPIAK

Zirrikituetatik eguzki zipriztinak hasi direnean
aurreneko autoak belarrietara datozenean
gihar lehortuen bila
abian da berriro odola zainetan

aiztoa da goiza
nire betazalak ebakitzen

# BEGI ZABALTZEA

Kartoipetik jaio ginen haurrok
aurreko paretaren kontra
harrika bota genuen mundua

puskak erori zitzaizkigun hankapera
puskek ireki ziguten azala

minez begiak zabaldu genituen
estreinakoz egia batzuk ikusiz
egiak beren buruaz beste egiten

# ITSASERTZEKO ARROKA

hemen natza itsasertzean
lurrak urtzen eta urak lurtzen diren bazterrean

hemen natza harri
harkaitz kosko
hemen natza arroka busti

uhinak ditut tai gabe kolpeka
errime iparretik ukaldika

gau eta egun
kresalezko lanbro bat gainean

eta atzera ertzetik uhinak
gogor amai gabe zafraka

olatuz laztan gaziz
bihurtzen ari naiz
itsaspeko harea xehe

# BANATOR

banatorkio gauari
zelaira jausiko natzaio
etzanda osorik irents nazan

banatorkio beleari
isatsetik oratzera
ortzi gorrian hondoratuko dut

banatorkio
aire bila murgiltzeko
itsasora arrainari

banatorkizu
lurra janez
banatorkizu zuri
erne zaitezen herdoilpetik

# NIRE HARRIAK

nire harriek ez dute estratarik osatzen
ez daude mendi hegietan
nire harriekin ez da etxerik eraiki
eskultoreek ez diete forma eman
ez dira inor harrikatzeko erabili
nire harriak lurpean daude
zu halako hamaika beherago

# EMAN IEZAZKIDAZU BI

eman iezazkidazu bi bizitza
eta bat geldirik
alferrik galduko dut

eman iezazkidazu bi eternitate
eta bat oinutsik
zeharkatuko dut

eman iezazkidazu bi
eta altxatuko dizut hareaz
gaztelu bat

eman iezazkidazu bi
eta egingo dizut ur baldekadez
itsaso berri bat

# TO

har ezazu beira eroria
kristal apurtuak nire eskuak
zure hutsezko horma laztantzen jarriak

elkarren marmolean murgiltzeko
alferrikako ahalegin hau
zurrunak sasoi honetako behelainoak

hartu bizitzak berunez beteak
paradisu herdoilduak
lantegi zaporeko izatea

eta kafe kikara batean sartzen den adina bero
portzelana apur bat hotza denerako

# HIRETZAT

ez dinat
meatze urre gorrizkorik
kate batean hire lepora ekartzeko
zulatu eta hatzetan ipintzeko
jartzeko hire belarrietan
eskuturretan

ezin dinat
parez pare dugun itsaso hau
topa egin dezagun
bi edalontzitara banatu

ez dinat
hiri emateko ezer
mugitu behar hau ez bada
nori errendatu ez dakidan
zirkin hauek ez badira

# IZAR BELTZAK

ekar itzazu bi izar beltz urez beteak
leiar-ortzi horretatik
eta joango naiz ezkutuka ortozik
eskuetan hartuta xedera
hodeiei haize apur bat ebastera
izarrak lehor daitezen ufada batez

# GURE ILUNAK

Iluna berunezko kutxa da
jaso ezin den pisu tzarra
baina zurean badu heldulekua
garabia lotzeko zulo bat
badago gerriraino goratzerik
zer ezkutatzen den
makurtu eta ikusteko
ea hor gorde diren
hemen ostutako kaleargiak

# ARRAINAK

Joan doaz arrainak
igeri lainoetara
itsasoetako ur guztia
nahikoa ez balute bezala

# Basamortu arrastoak zainetan

# ODOL TANTA

Udaberria isurtzen zaizularik ari
umotu da lehertu
zure lurrean odol tanta bat lodia
zure zauritik mailubi bat gorria

# PUTZUA

lorratz iheskorrak utzi nizkizun
zure azalean
eta zatitxo bat lapurtu
galtzerdietan gordeta

baina zu
ura baino ez zara
eta lurrundu
eta bazoaz

# AUTOETAN

eguna motor itzali bat denean
autoan sartu eta
bata bestearen bila abiatzen gara

laranja kolorea dute semaforoek
beren azpitik igaro orduko
gurata galtzen gara bidegurutzeetan

argiekin keinuak egiten dizkiogu elkarri
ilunean irri bat geroarte bat
debekatuta daude klaxonak gauean

gehiegi hurbildu zara kontrako bidetik
mundua bertan geldiarazi asmoz
hondoraino zapaldu ditut balaztak

ozta libratu gara talka egitetik
ikara gorputzean jarraitu dugu aurrera
arrasto beltzak geratu dira asfaltoan

# UTZI GENIEN ZERUA

arrakalatuta itzuli digute
hegazkinek zerua
orain beti da arratsa
burdinazko egin dira hodeiak

hilurren den zeruak
ezin die izarrei eutsi
eta izerdi tantak
erortzen zaizkio

besoetan zeru bat
odolusten ari zaigu

# BEHATZ MINDUAK

ardiak larrutzen nituen
behin eta berriz
alfonbrak ipintzeko
oinen pean

halere arantzak
halere harri kondarrak
burdina zatiak kristal puskak
behatz artean

gaitza da azkazal hautsiez
noraeza zarrapotu
bide bat markatu
eta aurrera egitea

# HEMEN GOIAN

Kablerik kable nabil
desira sorta bat eta
gure elkarren beharra
altzoan hartuta

telefono harietan nabil
ekilibristaren gisan
ortozik nabil
hankazpiak erreta

eta banatzen gaituzten lurrotan
erdibideko belaze batean
gorpu bat dakusat ahuspez

hemen goian haizeak
izuak astintzen dizkit
hor behean hilotzari adatsak bezala

# BELATZAK

belatzak josi ahal banizkie
nire begiei
gertutik ikusteko zeruak
ikusteko hodeien lehertzeak
gertutik bestaldeko olatuak
lotu ahal banizkie
erreparatu ahal izateko
urrundik
bi bakardadeei

# EGURALDI IRAGARPENA

giza ekaitzak aurresan ditu egunotarako
eguraldi iragarleak irratian

hodeiek eskualdea hartzea espero da
tximistak trumoiak
altzairuzko izotz harriak
eta euria ozeano bat betetzeko beste

haize zakarra izango dugu
mendebaldetik ekialdera
aireportuak zubiak etxeak
lipar batean erauziko dira

ez omen da itsasgorarik izango
itsasoa beldur bide da eta urrun nahi gaitu

aise asetuko dira egarri diren padurak
petalo bakarreko loreez estaliko ordekak

# NIRE GANBARA

geldirik dago arratsa
beluri dena
bazter honetan nire ganbaran

mahaian paper ixilak
hauts apur bat
eta erailda orduak

apalean zure irri nekatua argazkian
eta norbaitekin hitz egite aldera
piztu dudan irratia

hanka bat baino ez du
apurtu gabe osorik
nire bakardadeari eusten dion aulkiak

# IZOTZA DENBORARI

Izozpean besarkada hura
oliba oliotan ezpainen biguna
argizariz hatzen ferekak
airerik gabe kumulu bakartia
formoletan hire irriak
formoletan hire ahotsa
eta gure amodioa gatzez estalita

# LABERA

ez iezazkidazu patrikak berunez bete
biok birika bakarretik
herdoil hautsa iragazten dugula badakit

ez iezazkidazu iltzeak zapatetan sartu
badakit burdin ferekez
sexua urratzen diogula elkarri

badakit ezerk ere ez gaituela salbatuko
labe horretan altzairu bihurtzetik

baina bitartean ez nazazu zanpatu
gabi-begi horiekin

# UHOLDEA DATOR

Pitzatzen hasi zaigu
orduen joanari jarritako porlana
harrizko azalean ebakiak egin dira

nola eutsiko diogu denborari
edalontzi erori bat bezala
gure gainean lehertzen denean
zementuzko horma

sobera dakizu
uholde bati eusteko
biok besterik gabe ez garela aski

hasi dira itokinak arrakaletatik

# UDAZKENA

Udazken honek
ez dakar hostoen jaustea
ez dakartza gaztainak lurrera

bide bazterretan ez dago ezer
birika zati batzuk besterik ez

# Esku bete negu

# EZKATAKA

Igeri darraite arrainek
ortziko osinetan uger
tarteka-tarteka askatuz
kristalezko ezkata urtuak

# PETROLIONTZIAK

ikusi nizkizun kobrezko gereziak lehertzen eskuetan
begiak hilotzez bete-bete eginda berunduta
alua herdoiltzen eta gorritzen
nola metalezko hesiak altxatzen zizkizuten zainetan
ikusi nizkizun azalean petroliontziak
titietako zilarra xurgatzen

# METRIKA KONTUA

geldirik egoteak higatu ditu
gure zapaten zolak
zuloak egin eta joan da denbora
egonean erasan zaizkigu giharrak

elkarri eskurik askatu ez badiogu ere
hazi egin dira malkarrak
metrikaren bat falta zaigu
gure aurpegien artekoa neurtzeko

orain alferrik hasiko gara
amore eman genuen puntuaren xerka
egin ez genuenaren hazmarken atzetik
azken suteak ezabatuak ditu aztarnak

# ERRETENETATIK HOTZA

hutsalki saiatuko gara ezkutatzen
epeldu edo gozatuko direlakoan
elkarren murrailen atzean ondoezak

hertsi ezin diren erretenetatik
hotz sartzen ari baitzaigu likidoa
putzuak eginez oinetan

babesgabezia bat biltzen digute
ertz zimelduek orain
biguntzen ari da kartoizko zorua

besarkatuta edo besarkatu gabe
berdin izoztuko
berdin hondoratuko gara

# ERREPIDEA

gasolindegian utzi ditugu
berandutu egin diren promesak
eta berriro mugitzen hasi da errepidea

kristalean etengabe berregiten diren errekak
argiak piztuta daramatzagu eguerdian
distantziak hurbildu ahala handitzen dira

marra zuri eta seinale artean kateatuak
harat-honat ibiltzea askatasuna dela iritzita
auto berean goaz gu bi norantzetan

betile okertu bat nola
hala sartu zait asfaltoa begira
errazago labaintzen gara zoru bustietan

# ELURTUTA

negua dabilkit
elurra ari du zainetan

zartatuak ditut birikak
airearen ertzez

ezin irentsirik
iltzeak eztarrian

eta hatzak kristalezkoak
mugitu orduko hausten zaizkit

elurra ari du zainetan
bil nazazu mina egosi arte

# EZIN DA
# BESTE INON IZAN

asteak dira joan zinela
eta hiriak ez du zure hutsunea nabari
ez zaio sabelik urratu
ertz hauen artean ez bada

haizea sartzen da hormetatik
gela huts zaporea ezpainetan
eta oinetako izotza urtzeko
ez da aski eguzki txiki urkatua

hala ere ezin nezake gela hau utzi
ez dago beste lekurik
bazter honetatik bakarrik maita zaitzaket
oheak min duen bestalde honetatik

# ZER GALDU ZAIZU

itxaropena jausi zaizu eskuetatik
eraikin bat erortzea lakoa izan da
eta zure garrasiek mundua pitzatu dute

zer izango ote da
bularraldea erdibitzen dizun zulo hori
zure larritasunean ikusten den amildegia

heldulekuak erauzi dizkizute begietako luiziek
nabari da ez duzula zeri atxiki ez duzula babesik
zenbat bero gorde diezazukete leiho apurtuek

iruditzen zait gaitz guztiak sufritzea
baino are latzagoa izango dela
etengabeko zure itotze hau bizitzea

# NEGU LUZEA

bost urtaro iraun zituen neguak
elur beltzez estali zitzaizkigun teilatu eroriak

enarak zurrunduta jausten ziren habietatik
haurrek elkarri jaurtitzeko lumazko harriak

behiek ur gardena baino ez zuten ematen
labetik ateratako izozkiak jaten genituen

egur hezeez irazeki genuen suari
txinpartak falta zitzaizkion beroa izateko

ontziak ez ziren portura arrimatzen
aingurak harkaizpean trabatuak

haizeak zakar eramaten zituen
aurpegia berotzen hasi aurretik
masailetan irristatzen zitzaizkigun malkoak

eta ilargia betirako abandonatu gintuen ama

# ZIRRIKITU BAT

berriro esango dizut
gu ez gara
norbaiten bakardadea betetzeko
hor biraka ari den zementu bigundua
ez eta zutabe zurrunak
zeozeren oinarri edozeren euskarri
gu ez gara
adreiluak bata bestearen gainean jarriak
inor babesteko bere ostean
gu gehienez atearen azpiko zirrikitua
txarto zarratzen diren leihoak gara
sabai zulatu bat abenduan

# IDORTEA

desertu bazterrean topatuko nauzu
zapi batez amorrua estali ezinik
esango dizut gabeziak baino ez ditudala biltzen
zerbaiten fruituak balira bezala
eta berandu dela
ezin naizela besterik gabe
lurraren gorria zainetaratzen hasi
ezin dudala sabela harriz bete
eta berandu dela berriro euriari deika hasteko
lehortea noiz iragango itxaroten geratzeko
beti izan dela berandu
eta izango dela oraindik

# Haize apur bat aurpegira

# BUSTITZEN

gaur euripean ikusi zaitut
ez zeneraman ez aterki ez estalkirik
eta euria beste guztientzat bakarrik ari zuela
zirudien

zu ez zara bustitzen

# ZUHAITZA

Zuhaitzak gaur
ez ditu adarrak eta hostoak nahi
ez du bere magalean txoririk nahi

zuhaitzak gaur
ez du errekak daroan urik edaten
ez du bera ferekatzen haizerik sentitzen

gaur zuhaitza
harkaitz gogorra da

# AZKEN AUKERA

asfaltoak eman babesaren gainean
uzten ditut nire lorratzak
herratze baten neumatiko aztarnak
semaforoek kolorez
aldatzen didatela larruazala

auto hauetan mugiarazten dut
barru urduria batetik bestera
aireari metal zaporea emanez
keaz begiak igurztea
negarrari eusteko azken bidea banu bezala

inora heltzerik gabe abiatua naiz
gurpiletan noraeza biraka
zure bila edozein bide hartzea da
geratu zaidan aukera bakarra

# PARKEAN

begira uretara eta ikusi
handitu ahala nola desagertzen diren
uhin biribilak han eta hemen

udazkeneko euria izan zitekeen
edo hostoak itsasorantz partitzen

auzoko haurrak dira
errekako ahateak harrikatzen

# DESERTUAK ETA ITSASOAK

Zu gabe ere hondarrezkoak izango ziren desertuak
itsasoak harat-honat dabiltzan arrain sardak

eta euriak beti bustiko du

zu gabe ere gorria izango zen eguzkia
lainoak bakarti doazen antzara galduak

eta haizeak beti lehortuko du

# ATZOKO HAIZEA

atzoko haizea sartuta daukat gelara
dantzan jarriak
mahaian paperak apaletan hautsa
egonezina nire barnean

zintzilik geratu dira
rock izarrak poster despegatuetan
arropak aulkitik jausita
hilotz bat dut zoru gainean

haizea aterako badut
leihoa zabaltzea
beste irtenbiderik ez daukat

# ARNASA ZAHARBERRITUAK

aldamioak ipini ditinat
sokak eta poleak
bizitza hauek berritzeko
eta zubiak altxatu
bion dardarak lotze aldera

iluna zintzilikatzeko
begiertzetan kaleargiak
eta titanio tantak
aurpegia apaintzen

ipini ditinat harlauzak
hire arnasean plaza bat
elkar topa dezaten bakardadeek
gure herratzeentzat leku bat

# EHOTZEN

karraskek goizalba ebaki dute

nire eskuak zangoak nire haragia
erraiak eta hezurrak
zure hagin artean ehotzen entzun dira

itxaropen beluriek krask
etorkizun berandutu batek
krask ibilian lurretik jaso harriek krask
ezin bereiz daitezke orain
izan nintzena eta hareatzako hondarra

ezpainetan lokazten nintzaizula hil naiz

# JOAN-ETORRIAN

arrangurak zapatak jantzi ditu
eta badoa astiro
zeru leundu bat dator
irriak saldoka ekialdetik

atzean geratu dira gerizpeak
atzean promesa izoztuak
festa abandonatu bat
atzean ageriko sekretua

begira nola axolagabezia berberaz
hango eta hemengo arropak
eta barruko tristura zokoak
lehortzen dituen eguzkiak

# Udaberria hankapean

# HARRIAK ETA ADREILUAK

ez iezazkiozue bota
hondakinen artetik jaso dituzuen
harri horiek

jaurti egizkiogun
egonean eguzkitan sikatu diren
adreilu gorriztak

# BESTE NONBAIT BUSTI GAITU

taupadek jitoan garamatzate
elkarri amarratzea baino ez dugu
ez da beste heldulekurik

hatzokin eta eskuokin
txarrantxa irentsiek sabela adina
gozatu ahal diogu batak besteari bakardadea

elkarren gabezia gara
eta hemen ari duen euriak
beste nonbait busti gaitu

ez galdetu nondik idazten dizudan
badakizu non lotu zintzaizkion nire minari

# ZAPATA ZIKINAK

kristalezko gautik edan genuen
nola emendatu asmatu ezinik
elkarri izeki barru artegatuak

haztamuka eskuak begien zuloan sartuz
saiatu ginen maitale horditua ateratzen

baina gure eldarnioak eta alkohol usaina
izan zitekeenaren hegian hustu ziren

biharamunean zapata zikinak besterik ez genituen
zapatak eta desira bat
ohantze bitan erdibitua

# NORENTZAT

norentzat dira mundu honen hezur hautsiak
norentzat zeru ihartua
norentzat harriok minbizitan
esku hauen sosegu eza
norentzat poetaren hatzak ebakita
poesia odola paperera

# INDUSKETAK

Zerbait galdu bagenu bezala gabiltza
zaurietan lurra harrotzen
indusketak egiten elkarren barnera

ez dago brontzezko estatuarik
urrezko txanponik ezkutuan
arkeologia hits bat da
hezur harri-bihurtuak baino
ez ditu estaltzen hondar honek

ezin naiteke hatz urratuokin beherago heldu
minduegi ditut bi eskuok
eta bihotz fosilak non topatuko beldur naiz

# ZENBAT BIDER

Oroitzen naiz oraindik
bizitzari zirrikitu bat zabaldu
eta bertatik ihes egin zenuela

oroitzen naiz nola
zu estaltzeko gura adina lur genuen
nola ez zen izan aski ez zen nahiko

eta zure begiez egin nuela gogoeta
hondarra sartzen zaienean
ez dira gureak bezala gorrituko

paretetan zikin arrasto bat utziz
beti beste norabait beti aurrera
badoa denbora

hemen lehengoak gara
barruraka lehertzen garen basaloreak
hazi antzuak gu euripean

eta galdegiten jarraitzen dugu
zenbat bider gehiagotan hil behar garen
benetan guztiz hiltzeko

# BIRIKA BILKETA

hodeiak ekarri nahi nituzke
bularzulo honetara
hutsuneok betetzen hasi
airez busti hodi sikatuok

erdu eta lagun nazazu
birika zatiak biltzen

# TIRAKA

aspaldi erasandako soketatik
ari gara tiraka
zer ekarriko zer agertuko
ez dakigula

beharbada tren ugertu bat
oren zaharrez zamatutako bagoiak
errail kiribilduak eta
trenaren aurrean iragana amildegi eginda

edo arrastaka barku bat
azpian ur gatzitua dakarrela
hegazkinak eta zeruertzak
haratago eramango gaituzten ibilgailuak
eta bideak

jarrai dezagun tiraka
milimetroka zerbait hurbiltzen ari da eta

# HARRI METAK

eta landu behar ditugu lursailak
laiez goldeez alperrarriez
lanabes zaharrez

eta alorrak atondu
harri haziak ereiteko
erne daitezen harriondoak

eta udazkenean harriondoen adarretatik
zuhaizpera eroriko dira harriak
gure izerdiaren fruitu astunak

eta uzta metatan bilduko dugu
haize zakarra datorrenean
berarekin eraman ez dezan gure lurra

# TAKETAK

burdina zati bat gara
taket herdoilduak
bizkarretik gibeleraino
elkarri sartzen dioguna

harri kosko bat
kopetaren erdira elkarri jaurtia
indarrez eta artez
aurpegia apurtzera

entzun laster jaioko diren
umekiak garrasika
bizitzaren alde honetarako
burdina eta harri gehiago

# HEMEN GERRAK DIRAU

beste noizbait izango da nire menia
beste nonbait desarmatuko naiz

hemen ez ezazu hurbiltze keinurik bila
dagoeneko barrura gordeak ditut
balkoitik zintzilik nituen arropa zuriak

kaleotan pizturik topatuko duzu sua
lurrean hego-haize batek barreiatuak
bidali ez zenizkidan gutunen errautsak

ez ezazu hemen tregoarik espero
esan gabe geratu ziren hitzen atzean
espero itzazu lubakiak

baliteke egunen batean
adiskidetze itunen bat eskaintzea
edo besterik gabe entregatze bat

baina beste noizbait
eta beste nonbait